

## BEHEKOSOLOA KIROLDEGIKO KAFETEGIKO ALOKAIRUA

Behecosoloa Kiroldegiak kafetegia alokairuan jartzen du, Loiuko Goitiko Antsobiaga kalean (instalazioak Lauro Ikastolan daude, 1.900tik gora ikasle eta 1.230 bazkide dituena). Lokalak ondoko ezaugarriak ditu:

- 175 m<sup>2</sup>, 2013an berriztatua, beharrezko tresneria eta gailuekin.
- Asteazken zehar Ikastolako erabiltzaileak eta asteburuetan ikastaroetara eta kirol lehiaketetara datozen bertoko eta kanpoko erabiltzaileak ditu.

### Baldintzak:

1. Kontratua 5 urterakoa izango da (2025 urteko irailaren 1etik 2030 urteko abuztuaren 31ra).
2. Alokairua hileroko gutxienez 500,00€koa izango da (BEZa eta atxikipen barik).
3. Legeari jarraituz, debekatuta dago alkohola saltzea.
4. Kafetegiko pertsonalak Behecosoloak antolatzen dituen ekintzetan laguntza emango du zerbitzua modu egoki batean eskaini ahal izateko.
5. Kafetegia alokatzen dutenek, Behecosoloarekin elkarlanean, zerbitzu batzuk eskainiko dituzte, arduraduna Behecosoloa izanik, eta etekinak banatuz. Gaur egun ondokoak dira, beste batzuk sor badaitezke ere:
  - a. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1-2-3 mailetako gelako urtebetetzeak, hiru hilabetero, astelehenetik ostegunera, 16:30etatik 18:30etara, Laurok ezarritako baldintza (menuak, jarduerak,...) eta egutegiarekin.
  - b. Urtebetetze ospakizunak, ostiraletik igandera, eskariaren arabera.
  - c. Lauroko jaiak, ekaineko larunbata batean, txosna jarritz.
  - d. Eskaintza kultural: artistiko eta musikalak, erakusketak, eta abar.
6. Kafetegian lan egiten duen pertsonak bezeroen arreta euskaraz eta modu atseginez egingo dute.
7. Instalazioak garbi eta txukun mantenduko dira.
8. Orduetgia:
  - Lauro Ikastolako eskola-egutegiko egunak: 11:45etik ekintzak amaitu arte, ostiralak salbu.
  - Ostiralak: 11:45etik azken ekintza amaitu arte (ikastaroak, lehiaketa...).
  - Larunbatak: 8.00etatik azken ekintza amaitu arte (ikastaroak, lehiaketa...).
  - Igandeak: 9.30etik 14:30era arte (salbu beste ekintzarik badago).
  - Uztaila eta abuztua: itxita egongo da ikuskapen orokorrak zein mantenu-lanak egiteko.

- Egun bereziak: errentariak establezimendua zabaldua izan beharko du ezarritako ordutegitik kanpo, errentatzaileak egun berezien ospakizuna dela eta horrela eskatzen dioenean (Lauro Jaia, txapelketa bereziak, igande arratsaldeetan kiroldegian aktibitateak daudenean, etab.).

Proposamenak aurkezteko azken eguna, urtarrilak 19a izango da. Bidali eskaintza ondoko helbidera: [behekosoloaxxi@lauro.eus](mailto:behekosoloaxxi@lauro.eus).

Baldintza guztiak zehatzago tratatuko dira kontratua sinatzerakoan.

**Zuen proposamenek ondokoak batu behar dituzte:**

1. Aurkezpena: proposamena egiten duzuen pertsonen izen-deiturak, telefonoa, bizilekua eta kurrikuluma.
2. Proiektua: aurreko azalpenetan oinarritutako proposamena, zerbitzuari egin nahi zaizkion hobekuntza-proposamen osagarriekin. Baloratuko da:
  - a. Proiektua eta esperientzia (20 puntu): zer eskaintzen zaio Kiroldegiari eta Lauro Ikastolari, zer eskatzen zaio, proiektuaren ardatzak...
  - b. Menua eta pintxoaren barietatea (10 puntu)
  - c. Menua eta pintxoaren prezioa (5 puntu)
  - d. Jarduera eta proposamen gehigarriak (5 puntu)
  - e. Ikastolako bazkideak izatea (1 puntu)
  - f. Eskaintako kanon altuena baloratu egingo da (2 puntu).
3. Motibazio gutuna: pare bat paragrafotan azalduko da zergatik izan beharko zenuketen kafetegiko arduradunak, zerk bereizten zaituzten gainerakoetatik eta zergatik zuek aukeratzea Behekosoloa eta Lauro Ikastolaren zerbitzu orokorra hobetzen lagunduko duen.